

BERMEOKO UDALERRIKO TONPOI-ITSASERTZ ZONALDEKO PAISAIAREN EKINTZA PLANA

HELBURUAK ETA EKINTZAK



ZURE PAISAIAREN HITZETAN, ZU;
ZURE HITZETAN, PAISAJA.
TU PAISAJE HABLA DE TI.
HABLA POR EL.



2018ko urria

BERMEOKO UDALERRIKO TONPOI-ITSASERTZ ZONALDEKO PAISAIAREN EKINTZA PLANA



HELBURUAK ETA EKINTZAK

*JUISIYOKO EGUNIEN EPERLANDAKO
LANDARA BATUNGO GARLE DANOK, ONAK OGONGODIES
ESKOITXIK TA TXARRAK OGONDO DIES ESKERRETIK*

AURKIBIDEA

KAPITULUA 1.- DIAGNOSI-DOKUMENTURAKO SARRERA	4
1.1 AURREKARIAK	4
KAPITULUA 2.- PARTAIDETZA PUBLIKOA	4
KAPITULUA 3.- PAISAIA-KALITATEAREN HELBURUAK	4
3.1 HELBURUAK	5
3.2 TONPOI INGURUNeko BIDE BERRIAREN KUDEKAETA ETA EGIKARITZEA.....	7
KAPITULUA 4. ESKU-HARTZEEN DEFINIZIOA.....	9
KAPITULUA 5. ESKU-HARTZE PROGRAMA.....	11
KAPITULUA 6. PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE NAGUSIAK.....	12
6.1 PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZEEN IRUDIAK.....	15
KAPITULUA 7. TONPOI BIDEAREN KORPORAZIO IRUDIAREN ESKUZKO PROPOSAMENA	16
7.1 DEBEKUA ADIERAZTEKO PIKTOGRAMAK.....	17
7.2 ARRISKUA ADIERAZTEKO PIKTOGRAMAK	18
7.3 INFORMAZIO-PANELAK ETA ATRILAK. SEINALEZTAPEN HORIZONTALA.....	19
7.4 "TONPOI BIDEA MOTAKO" INFORMAZIO-PANELA ETA ZIMENDUA.....	20
7.5 "LANDA MODELO MOTAKO" INFORMAZIO-PANELA ETA ZIMENDUA	21
7.6 "HIRI MODELO MOTAKO" INFORMAZIO-PANELA ETA ZIMENDUA.....	22
7.7 ATRILEN EREDUA.....	23
7.8 SEINALEZTAPEN BERTIKALA.....	24
7.9 SEINALEZTAPEN BERTIKALA EGIKARITZEA. I. ZATIA	25
7.10 SEINALEZTAPEN BERTIKALA EGIKARITZEA. II. ZATIA	26
7.11 BALEEN GAIARI BURUZKO INFORMAZIOA IPINTZEA AURREIKUSITA DUTEN PANELAK EGIKARITZEA	27
KAPITULUA 8. AZKEN ESKU-HARTZEEN AURREKONTU ESTIMATUA.....	28
8.1 TONPOI BIDEA EGIKARITZEKO AURREKONTU ESTIMATUA.....	32
KAPITULUA 9. TONPOI BIDE BERRIKO ARGAZKIEN TRACKA	36

KAPITULUA 1.- DIAGNOSI-DOKUMENTURAKO SARRERA

1.1 AURREKARIAK

Tonpoi ingurunean (Bermeo) Paisaiaren Diagnosi Teknikoari dagozkion faseak eratu eta Herritarren Partaidetzarako prozesua burutu ondoren, Ekintza Plana bera eratzea dagokio.

Diagnosiari dagozkion alderdiekin, Herritarren Partaidetzarako Prozesuarekin, Bermeoko Udalarekin eta lurraldeko dokumentuetan ezarritako beste zenbait Jarraibiderekin elkar-elikatutako prozesu honen ondorioz Bermeoko Udalak estrategia planetara gaineratuko dituen Ekintzak sortuko dira, Tonpoi ingurunearen Paisaia Plana behar bezala burutze aldera.

KAPITULUA 2.- PARTAIDETZA PUBLIKOA

Partaidetzazko prozesu bat burutu da¹ Tonpoi ingurunearen Paisaia Planari buruz. Jarraian parte-hartzaile kopuruari eta saioetako datuei buruzko aipamen labur bat egiten da:

Presentziatzko parte-hartzaileak 123 pertsona izan dira, eta bitarteko digitalen bidez parte hartu dute 78 pertsonak. Guztira, bi bide horien artean, 140 pertsonak parte hartu dutela uste da, modu presentziakoan parte hartu zuen erdiak bitarteko digitalak erabiliz ere parte hartu zuela joz. Parte-hartze prozesuan Bermeoko herritarren parte-hartzea izan da: auzotarrak, eremuko lurren erabiltzaile eta jabeak, gazteak, elkarteak, teknikariak eta udal ordezkariak.

Prozesuan presentziako parte-hartzea, bi saio publiko, gazteekin egindako lau saio eta parte-hartze digitalean laguntzeko www.tonpoi-bermeo.eus bitartekoa konbinatu dira, 2018ko martxoaren 15 eta apirilaren 15 bitartean.

KAPITULUA 3.- PAISAIA-KALITATEAREN HELBURUAK

Paisaiaren Europako Hitzarmenarekin bat etorritik, paisaia-kalitatearen helburuetan zera irudikatzen da, kolektibitateek beren inguruneke paisaiaren ezaugarriekiko dituzten asmoak, herri-administrazioek islatuta.

Paisaiaren balioespenean herritarren eta interesatutako agenteen hautematea hartu behar da kontuan, eta baita prozesuan inplikaturako eragile ezberdinentzat gardena, ulerkorra eta erraz eskuratzeko modukoa izan behar den lan tekniko baten ondorioak ere.

Horretarako, partaidetza publikoko prozesu bat garatu da, aurreko puntuan zehazten den moduan, zeinaren bidez azalpen argi eta erraz batekin, inkestekin eta bestelako ekarpenekin, Bermeoko herritarrek Tonpoi eremuko paisaia definitu eta balioetsi ahal izan duten, horrekin lotutako ekintzak proposatzeaz batera.

Tonpoi ingurunearen gainean balioesten dutenari buruzko herritarren erantzuna ahobatezkoa izan da. Tonpoiak, natura-ingurunea, nahiz natura eta paisaia bere osotasunean, **eremu osoa zeharkatuko duen bide bat sortuz**.

Kalitate-helburuak hurrengo betekizunen arabera burutu behar dira:

1. Paisaiaren egoerari, haren eraldaketa-dinamikari eta eremuaren izaerari buruzko aurretiko ondorioei erantzutea.
2. Eskualde mailan, maila nazionalean nahiz nazioarte mailan paisaiaren babes, antolamendu eta kudeaketari buruz ezarritako orientazio, irizpide eta jarraibideekin koherenteak izatea.
3. Eduki argia izatea, erraz ulertzeko modukoa.

Paisaiaren ikerketen helburu nagusietako bat paisaia-kalitatearen helburuak ezartzea da, haren inguruneke herritarrek dituzten asmoen arabera.

¹ Herritarren partaidetzarako plana memorian gaineratzen da, hartako eranskin modura.

Partaidetza-gainera, herritarren nortasuna indartzea ahalbidetzen duen tresnatzat hartzen da, bere bizi-ingurunean bere burua aitortzen duena. Behin ekintza ezberdinak aurkeztuta, azken ekintzak jaso eta aurrekontua egiten da.

3.1 HELBURUAK

PAISAIA-KALITATEAREN 1. HELBURUA. Paisaia Interes Bereziko Eremuen babesa Ekintzak

1.1.- Tonpoi inguruneke paisaia-unitateak paisaia interes bereziko eremu modura aitortzea. Paisaiaren Katalogoan barneratzea.

Florentzian Europako Kontseiluak 2000. urtean onartutako Paisaiaren Europako Hitzarmenak paisaiaren aldagaia lurralde- eta hirigintza-plangintzan txertatzea bultzatzen du, pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eragiten duen faktore gisa.

Lurraldeko Antolamendurako Jarraibideak berrikusteko dokumentuan (2015eko azaroa) paisaia arloko lurralde-ereduaren zenbait orientazio ezartzen dira, horien artean honakoak nabarmentzen ditugularik: itsasertzeko paisaia eta hondartzen ingurunea babestea urbanizazioa eta azpiegiturak ekidinez eta portuen irudia hobetuz; Ibai-paisaiaren lehengoratzeko eta kontserbazioa sustatzea eraikuntza degradatzaileak kenduz, ibaiertzeko landaretza zainduz eta oinezko nahiz txirrinduentzako bideen sare bat bultzatuz; kultura bideak balioan jartzea eta ibilbide, bide eta behatokiaren sare bat sortzea, kostaldeko ibilbideak barne.

1.2.- Paisaia interes bereziko eremuetan garatzeko jardueretarako Paisaia Integrazio Ikerketa lotesle bat onarpenera ematea eskatzea.

Paisaia interes bereziko eremuaren deklarazio horrekin batera eremu horretan garatzeko jardueren Paisaia Integrazioaren Ikerketa eskaera bat egin behar da.

Paisaia integrazioaren Ikerketaren barnean daude paisaiaren gainean obrako proiektuek eta jarduerak duten ondorioak aintzatestera nahiz obrak eta jarduerak paisaian behar bezala integratzeko irizpideak eta hartutako neurriak azaltzera bideratutako dokumentu teknikoak.

Hori guztiori, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikularekin bat etorriz, bertan proposatzen baita Ikerketa horiek eskatuko direla lurralde- edo hirigintza-plangintzan hala eskatzen bada.

1.3.- Tonpoi ingurunean ingurumen arloko nahiz arlo geologikoko inbentario bat egitea, hura zaintzeko protokolo batekin batera. Xehetasunezko inbentario bat eta haren zaintza eta babeserako protokolo bat egitea proposatzen da.

PAISAIA-KALITATEAREN 2. HELBURUA. Paisaiara errespetuz hurbildu eta gozatzea Ekintzak

2.1.-Lurzorua baitaratu eta “Tonpoi Bidea” izeneko bide barri bat eraikitzea. Haren abiapuntua Ongintza kalearen alboan egingo litzateke eta Talakoko parkerantz jarraituko luke, ondoren bide berri bat egokituko litzateke ILDP delakoaren lerroa baliatuz, Tonpoi Txikia eta Tonpoi Handia aldera, itsasertzeko lerrotik jarraituko duena Aritzatzuko hondartzara iristen den egungo bidearekin bat egin arte.

Ekintza honek mugikortasun osasuntsuko politika bat bultzatzen du, deiera eta balio ekologiko handiko espazio bati berriro balioa emanez, edertasun itzeleko eta paisaia-aberastasun handiko paisaia bat barne hartuz.

Tonpoi eremua tokiko biztanleei eta Bermeoko bisitariei gerturatzeko helburu nagusia duen paisaia-ibilbide bat proposatzen da, horretarako egun dauden (baina egun ikusgai ez daudenak, seinaleztapenik ez dagoelako edo dinamizatu ez direlako) bide-tarteak erabiliz, eta ILDP delakoa eta haren zortasun-gunea aprobetxatuz bide hori gauzatu ahal izateko.

Esku-hartze iraunkorra burutu behar da, esku-hartzeak denboran iraun dezan, segurua izan dadin eta publiko ororentzat ibiltzeko modukoa izan dadin. Proiektua ibiltzeko modukoa eta segurua izan beharko da, babes-hesiz hornituta eta Bermeoko hiri bide nagusiak konektatzekoa.

2.2.- Ibilbideko lau puntutan behatokiak sortzea (Ikus atxikitako kartografia).

Behatoki horiek geratzen den agertoki bisualaz gozatzeko aukera emango dute eta paisaiaren inguruko pertzepzioa zeharkako moduan eskuratzea ahalbidetuko luke, non guztiak duen eragina; ikusten dugunak eragina du eta, era berean, eragina du nondik ikusten dugun eta nola ikusten dugun.

Behatokien sorrerak Tonpoi inguratzen duen pasaia ulertzen lagunduko du, izan ere, haien alboan informazio-panelak ipiniko dira, eta panel horietan eremuaren balio nagusiak islatuko dira ingurumenaren, paisaiaren eta kulturaren ikuspuntutik.

2.3.- Ibilbidea eta paisaia intereseko lekuak seinaleztatzea.

Seinaleztapena lagungarri da bideko erabiltzaileek eremuko beste zonalde batzuek erabili ez ditzaten eta alboetan dagoen zonaldea zapaldu ez dadin, eta erabiltzaileen segurtasuna bermatuko du. Halaber, seinaleztapenak Tonpoi tokiko gainerako konexioekin (karabanetan egoteko zonaldea, ibilbide osasuntsuak eta Bermeoko ipar-mendebaldeko zonaldea nagusiki) lotzen lagunduko du.

Sei informazio-panel instalatzea, hiri altzariz hornitutako bi atsedenleku gaitzea eta Tonpoietarako sarbideak egokitu eta hobetzea proposatzen da.

PAISAIA-KALITATEAREN 3. HELBURUA. Eraikin, azpiegitura eta jardueren paisaia integrazioa

3.1.- Eremu osorako paisaia irtenbidea.

3.2. Talako Andra Mari auzoko zenbait fatxadetan muralak sortzea, baleen edo itsasertzeko paisaiaren gaia aintzatetsiz.

PAISAIA-KALITATEAREN 4. HELBURUA. Paisaiak Tonpoi ingurunearen nortasunean duen balio eta irudiaren garrantzia hedatzea

- 4.1.- Dibulgazio-bisitak eta bestelako interpretazio-bitarteko batzuk eremuan. (Ingurumen arloko heziketa, Bermeoko ikastetxeen eskutik).
- 4.2.- Paisaia-ibilbidearen topo-gida bat eraikitzea, Tonpoi ingurunearen natura eta kultura balioak nabarmenduz.
- 4.3.- Paisaiarekin lotutako eskola-tailerrak, argazki- eta mural-lehiaketak (Talape auzoa).
- 4.4.- Babesa auzolanari eta tokiko Agenda XXI izenekoaren dinamizatzaileri) Tonpoi inguruneako esku-hartze ezberdinetan.

3.2 TONPOI INGURUNEKO BIDE BERRIAREN KUDEKAETA ETA EGIKARITZEA

A) Itsasertzeko igarobide-zortasuna berreskuratzeko espediente irekitzea

Zenbait kasutan Herri Administrazioek (estatukoa, erkidegokoa edo tokikoa) erabilera edo zerbitzu publikoko bideak sor ditzakete lur pribatuaren gainean, lurzorua erosi eta desjabetu gabe: "igarotze- edo igarobide-zortasun administratiboak". Horietan beste inorena den (lurzoru pribatua) eta erabilera edo zerbitzu publiko bati interes orokorra lortzeko eragiten (lotzen) zaion mugatutako egiazko eskubide baten administrazio-titulartasuna eskuratzen da.

Zortasun "administratiboak" zerbitzu-onibarraren jabearen borondatearen aurka inposatzen dira. Maiatzaren 29ko 2/2013 Legeak aldatutako Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean ezartzen da: "Igarobide-zortasuna", zeinaren titularra Estatua baita, "ezarriko da 6 metroko gunean, itsasertzaren barruko mugatik lehorrerantz neurtuta. Gune hori uneoro zabalik utzi beharko da, oinezkoen irtenbide publikorako eta jagoletza- nahiz salbamendu-ibilgailuentzako, modu berezian babestutako eremuetan izan ezik (27.1. artikulua).

Igarobide zaileko edo arriskutsuko tokietan zabalera hori behar den beste hedatu ahal izango da, gehienez ere, 20 metrora (27.2. artikulua).

Gune hori salbuespenez okupatu ahal izango da, itsas-lehorreko jabari publikoan egin beharreko obregatik. Kasu horretan, zortasun-gunearen ordeztzeko baldintzak dituen beste bat ezarriko da, Estatuko Administrazioak jasotakoaren arabera. Itsas pasealekuak egiteko ere okupatu ahal izango da (27.3. artikulua).

B) Kostaldee buruzko Legeko xedapenen lehentasuna

Jurisprudentziak Kostaldee buruzko Legeko xedapenak lehenetsi ditu lurralde- eta hirigintza-plangintzaren gainetik. Plangintza horrek ez dezake baldintzatu, ez itsas eta lurreko jabari publikoaren mugaketa, ez alboko lurretarako haren ondoriozko zonifikazioa.

Itsas pasealekuak Igarobide-zortasunetan lekutu ahal dira (Kostaldee buruzko Legearen 27.3. artikulua), izan ere, uneoro zabalik utzi beharko da, oinezkoen irtenbide publikorako eta jagoletza- nahiz salbamendu-ibilgailuentzako (27.1. artikulua).

Zein da itsas pasealekuak ezarri behar dituen plangintzako tresna?

Plan Orokorra izan behar da 53.1.e artikuluan xedatutakoaren arabera, espazio librearen sistema orokorreko bere izaera kontuan hartuz. Nekazaritza, elikadura eta ingurumen Ministerioa Kostaldeak. Kostaldearen sarbide eta erabilera publikorako zuzkidurak. Haren balioak babestuz honakoak landuko dira:

Oinezko ibilbideak kostaldean zehar: Gaur egun, Kostaldearen eta Itsasoaren Iraunkortasunerako Zuzendaritza Nagusia itsasertzeko ibilbide eta bide naturalen Programa lantzen ari da. Programa horren helburua oinezkoen igarobide publikoa gaitzea da, edozein pertsonak aukera izan dezan oinez (edo txirrinduz ahal den tarteetan) Espainiako kostaldeko perimetro osoa zeharkatu, eta Espainiako kostaldearen paisaiaren, natura ondarearen balioen eta itsasoarekiko kontaktu fisikoaz gozatzeko, hori zilegi denean.

Horrenbestez, gaur egun ibilbidearen proposamenak titular pribatuei dagozkin lurak zeharkatu behar baditu ere, igarobide-zortasuna, Estatuaren titulartasunekoa, eta 6 metroko gunean, itsasertzaren barruko mugatik lehorrerantz neurtuta, ezarriko dena, uneoro zabalik utzi beharko da oinezkoen irtenbide publikorako.

Kontua ez da bide berri bat eraikitzea, baizik eta historikoki herritarrek erabilitako eta azken urteotan ustez murriztua izan den igarobide-eskubide bat berreskuratzea.



KAPITULUA 4. ESKU-HARTZEEN DEFINIZIOA

Behin paisaia-kalitateko helburuak zehaztuta, aurreko puntuak oinarritzat hartuz proposamen ezberdinak diseinatu ziren, Herriarren Partaidetzarako Prozesuan aurkeztu eta adostu zirenak. Jarraian Tonpoi eremuari dagozkion proposamenak jasotzen dituen sortak barneratzen dituen taula atxikitzen da.

				BERMEOKO TONPOITSASERTZA ZONALDEKO PAISAIAREN EKINTZA PLANA		
				PROPOSAMENAK	jatorria	
TONPOITSASERTZA EREMUA	1	NORTASUNA	INGURUMEN POTENTZIALA	1.1	1.1.- Eremuaren ingurumen arloko heziketa.	S0
			PAISAIA ALDETIKO POTENTZIALA	1.2	1.2.- Gaikako muralak egitea Talako Andra Mari auzoan	S0
		AISIALDIKO POTENTZIALA		1.3.	1.3.1.- Behatokiak eta talaian berreskurapena.	S0
					1.3.2.- Tonpoirako erromeria berreskuratzea.	S0
	2	ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA	2.1.- OINEZKO PASEALEKUA	2.1.1	Talatik Talapeko kalara iristeko eskailerak berreskuratzea, Kantinaren alboko hegalean. Kostu handia, lur-jausiak izateko arriskua duen zonaldean eta Kostaldean baimenari buruzko zalantza. Parte hartu zutenen artean babes handia, baina bideragarritasun ikerketa tekniko-ekonomiko bat beharko du.	S01, SJ, ET
				2.1.2.	Tonpoi txikirako sarbidea hobetzea. Zabaltzea, zoladura hobetzea (harri gehiegi, batez ere adin nagusiko erabiltzaileentzat).	
				2.1.3.	Paisaia- eta ingurumen-ibilbide bat sortzea, itsaslabarretatik eta ongi seinaleztatua, Talatik Aritzatxura. Bidea garbitu eta zabaltzea. Ibilbidea gaitzeko zorua baitaratu eta egungo bide eta ibilbideekin lotura egitea.	S01, ET
				2.1.4.	Erabilera publikoa berreskuratzea itsaslabarretako zortasun-partzeletan, eta baita Tonpoi inguruneke etorkizuneko bidea ere.	ET
				2.1.5.	Bidea egokitzea autokarabanan aparkalekutik Tonpoietara (Tonpoi handia eta Tonpoi txikia) arte. Zuhaiztia.	S01
				2.1.6	Konexio zuzenak hilerriaren paraleloan dagoen kaletik kostaldera arte. Hilerriaren paraleloan dagoen kalea atseginago bilakatzea (oinezko eta txirrinduentzat). Eta hortik aurrera, oinezko sarea kostaldeko itsaslabarretara arte.	S01
				2.1.7	Gaztelu Apurtutik Aritzatxu arterako bidea berreskuratzea. Bidea teknika naturalak erabiliz zabaltzea.	S01
			2.2.- ATSEDENERAKO ERABILERA	2.2.1	Behatokiak sortzea puntu jakin batzuetan.	S01, SJ, ET
				2.2.2.	Kalen izaera barneko hori mantentzea, "ezkutuko lekuaren" izaera, era berean, haren segurtasuna eta zaintza bermatuz.	S01 S01

TONPOI-TSASERTZA EREMUAK	2	ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA	2.3. TXIRRINDU BIDEZKO PASEALEKUAK	2.3.1	Txirrinduentzako aparkalekua Aritzabxiko hondartzarako sarbideetik hurbil.	PV
			2.4. HIRI ORTUAK	2.4.1	Hiri ortuak, erabilera publiko berri gisa zonaldean, erabilera eta itxituretan erabiltzeko materialak arautzeko araudi batekin.	PV
	3	SEGURTASUNA ETA IRISGARritASUNA	3.1.MENDI-HEGALAK / ITSASLABARRAK	3.1.1	Gune arriskutsuak seinaleztatzea. Bereziki, Aritzabxutik hurbil dauden bi gunetan, non, gainera, baranda bat ipintzea beharrezkoa den.	PV
			3.2 ARGIZTAPENA	3.2.1	Beharrezkoak diren guneak argizatzea segurtasuna hobetzeko, paisaiarekin eta ingurunearekin modu sentzible batean, argi-kutsadura ez sortzeko. Esate baterako, luminaria baxuak, zorukoak; bidea adierazteko.	PV
			3.3.BIDEAK	3.3.1	Bideak egokitzea irisgarritasuna errazteko. bi Tonpoien arteko irisgarritasuna hobetzea.	PV
			3.4.SEINALEZTAPENA	3.4.1	Seinaleztapen jakin batzuk zonaldea hobeto ezagutzeko (flora, fauna, toponimia, Talako muralen azalpen-panelak) eta gune arriskutsuei buruz ohartarazteko (itsaslabarrak), zonaldearen izaera naturala mantenduz. Ibilbidearen eta paisaia intereseko lekuen hiri seinaleztapena.	PV, S01, SJ, ET
			3.5.HIRI ALTZARIAK	3.5.1	Hiri altzariak (paperontziak, bankuak eta iturriren bat) gune jakin batzuetan, zonaldearen izaera naturala mantenduz.	PV
	4	PAISAIA-KALITATEA	4.1.Orokorra	4.1.1	Paisaia integrazioarako ikerketak eskatzea, eremuan garatzeko etorkizuneko jarduerari begira.	ET
			4.2.IKUSPEGIAK	4.2.1	Antolamendurako eta kudeaketarako neurriak, horiek balioan jartzeko: Behatokiak sortzea puntu jakin batzuetan. Esate baterako: 1- Aritzabxura iristen, itsasoa, geologia intereseko zonaldea eta hondoan Aritzabxu ikusten direla; 2 – Behatokia Tonpoi txikian.	DT, ET
			4.3.LANDARETZA	4.3.1	Fauna eta flora berreskuratu, mantendu eta babesteko neurriak: Eremuko landare- eta fauna-espezieen inbentarioa eratu eta horiek balioan jartzea gune estrategiko batzuetan informazio-panelak ipiniz.	DT, ET
			4.4.FAUNA	4.4.1	Integrazioa beste udal plan batzuekin, esate baterako, Bermeoko Herrigune Historikoaren Plan Bereziarekin.	ET
			4.5 GEOLOGIA	4.5.1	Ingurumen arloko heziketa-proiektua geologia intereseko zonaldean.	DT
	5	ESPAZIO PRIBATUA	5.1.ERAIKUNTZAK	5.1.1	Eraikuntzen presentzia kentzea zonaldearen estetika hobetzeko xedez.	PV
			5.2.ITXITURAK	5.2.1	Itxitura opakuen presentzia aritzea talai eta baleen arrantzari buruzko gaiak erakusten dituzten muralekin, lehiaketa bidez dinamizatzeko. Landaretza edo ikuspegia oztopatzen ez duten itxiturekin aldatzea. Itxitura eta materialean altuerak arautzea. Espazio publikoaren unitatea eta harkikoko hautemate atsegina.	DT
				5.2.2	Egun dauden partzeletako itxiturak kentzea zonaldearen estetika hobetzeko xedez.	PV, ET
			5.3.FINKAPENAK ETA ORTUAK	5.3.1	Eremuko espazio pribatuak kentzea, egun dauden ortu eta finkapenak kenduz. Lurzoria baitaraztea.	PV, S01, ET
				5.3.2	Egungo bideko ezpondetako isuriak garbitzea.	ET

KAPITULUA 5. ESKU-HARTZE PROGRAMA

Behin herritarren partaidetzarako prozesuan aurkeztutako esku-hartzeak zehaztuta, Tonpoi ingurunea berreskuratzeko interesgarrienak eta gehien lehenestekoak diren esku-hartzeak balioetsi eta zehazten dira, itsasertzeko bide baten lehengoratzeara egituraturako dutenak: "Tonpoi bidea".

Ildo horretatik, Paisaia Ikerketetan beren balio naturalagatik, bisualagatik, kulturalagatik edo hiri balioagatik edo beren degradazio-egoeragatik esku-hartze espezifiko eta integratuak eskatzen dituzten paisaiak mantendu, hobetu edo balioan jartzea bermatzeko lehentasunez egikaritu behar diren Paisaia Programaren definizioa barneratuko da.

Programaren edukia. Ekintza bakoitzerako hurrengo alderdiak zehazten dira:

- Ekintza garatzeko aurreikusitako **egikaritze-epea** edo denbora-konpromisoa, LABURRA dela ulertuta 2 urtetik beherakoa baldin bada, ERTAINA 2 eta 4 urte bitartekoa baldin bada eta LUZEA 4 urtetik gorakoa baldin bada.
- Ekintza gauzatzeko **faseak eta epeak**, honakoak izan daitezkeelarik, I. fasea(2018-2019), II. fasea (2020-2021), III. fasea (2022-2023) eta IV.fasea (2024-2025).
- **Kostua**, ekintzaren kostu edo aurrekontu estimatua islatzen da eta, hala badagokio, hura zehazteko beste ikerketa edo proiektu batzuen beharra edo eragindako beste eragile sustatzaile batzuen premia.
- **Jarraipenerako adierazleak**, kontua Plana eraginkorra eta praktikoa izango den Ebaluazio Tresna batez hornitzea da, prozesuen, haietako emaitzen eta ipinitako Helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko lagungarri izango zaiguna.

Ebaluazioaren metodologia EKINTZA bakoitzerako egokiak diren Adierazleak ipintzean datza; horiek objektiboak eta neurgarriak izan behar dira, "Adierazle Sorta" izeneko konfiguratuz, Planaren, bere osotasunean, garapena behar bezala ebaluatzen.

Tonpoi eremuan Paisaiaren Ekintza Planak jarraipenerako tresna bat behar du, egiaz norabide zuzenean goazen edo hautemate subjektiboko parametroek horrela adierazten duten edo, aitzitik, zerbait ez ote dugun ongi egiten eta paisaiaren kalitatean galdu egiten dugun eta, beraz, ezarritako helburuetatik aldentzen ote garen adierazteko.

Nola neurtuko dugu Planaren betetze-maila hori? Bada metodo ugari dago; hasi ebaluazioa barnetik egitetik partaidetza Publikora arte, berriro, ebaluatzen parametroetan oinarritua, udal ekipamendu teknikitik pasatuz. Beti dago formula mistoak erabiltzeko aukera, oso ohikoa delarik auzotarrek udal ekipamendu teknikoekin berariaz parte hartzea, kanpoko aholkulariek koordinatu eta aholkatuta.

Dagoeneko aipatu ditugu Ekintza zehatzak aurkeztutako Planean; Ekintza bakoitzarekin adierazle bat edo etengabeko ebaluaziorako parametro bat gaineratzen da; metodikoki eta ezartzen dugun aldizkakotasunarekin ebaluazio hori Ekintza bakoitzari aplikatu baino ez da egin behar. Lan horren ondorioz, Paisaiaren Ekintza Planaren betetze-maila lortuko dugu eta, zalantzarik gabe, betetze-maila handia baldin bada, paisaiaren gainean herritarren duten pertzepzio subjektiboa

Ekintzak, nagusiki, elementu naturaletara bideratzen dira, eremuko itsasertzeko bide "berriaren" inguruan egituraturaz.

Herritarren pertzepzioa jasotzeko beste modu tradizional bat zuzeneko inkestak edo elkarrizketak egitea da. Denboran zehar pertzepzio horrek zer-nolako bilakaera duen eta Planeko esku-hartze edo Ekintzekin batera ematen den ikustea lortu behar dugu. Noski, gizarte-sareak eta bestelako formatu digital zenbait dira egokienak iritzietatik emaitza fidagarriak eskuratzeko.

Eskolak eta Bermeoko elkarte ezberdinak aintzatesteko esparru garrantzitsuak izango dira Planeko Ekintzek Paisaiaren gainean duten bilakaeraren eta inpaktuaren inguruko iritzia jasotzeko orduan.

KAPITULUA 6. PROPOSATUTAKO ESKU-HARTZE NAGUSIAK

TOPOI BIDE BERRIAREN ESKU-HARTZEA

Gutxi gorabeherako azalera: 10.800 m².

Esku-hartzeak: Kostaldeko bide berri bat sortu eta berreskuratzea, gutxi gorabehera 3 kilometroko luzera duena. Teknika bigunak erabiliz sortzea.

Horrekin lotutako esku-hartze kopurua: Ugari Planoaren arabera (seinaleak, informazio-panelak, etab.).

Deskribapena

Tonpoi eremuan eremu ezberdinak lotzen dituzten bide ugari dago, pixkanaka kostaldeko larreko habitata hondatzen ari direnak, horietan seinaleztapena ipintzea eta behar bezala mantentzea falta delako, eta horiek osorik erabiltzea eragozten duten partzela-itxitura asko dagoelako.

Bide "berri" bat egikaritzea planteatzen da, Tonpoi Bidea izenda daitekeena. Udalerriko hainbat zonalde eta Tonpoiak konektatuko ditu eta Aritzatxuko eremurako sarbidearekin amaituko da.

Bidea beharrezkoa den seinaleztapenarekin, ingurumen eta geologia arloko interpretazio-panelek, zonalde jakin batzuk babesteko hesiekin eta Bermeoko paisaiatzat hartu ahal izateko altzariz hornitutako atsedenekuekin egikarituko da. Malda handieneko zonaldeetan eskailera-mailak sortzeko trabesak ipintzea proposatzen da eta esku-hartze bigunak gomendatzen dira, baina aldi berean, bidea egonkortzekoak (albo drainatze iraunkorrak, azaleraren tratamendu biguna). Bidearen integrazio naturala ingurunean teknika "bigunekin".

Eremua ingurumenaren ikuspegitik eta ikuspegi sozial batetik paisaiari dagokionez berreskuratzeko balioko du. Ingurumen arloko heziketarako eta itsasertzeko ingurunea balioan jartzeko lanak burutzea.

Arrakastaren adierazle/irizpideak

- 1.- Lurzorua eskuratzea: Lurzorua egikaritu eta baitaratzea ondoren garatzeko. Kasu honetan Itsas eta Lurreko Jabari Publikoaren lerroa mugatu da 6 metro lehorrerantz, hori izango bailitzateke desjabetzeko gunea.
- 2.- Seinaleen eta bideko beste elementu batzuen, nahiz haren eragin-eremuaren, ikerketa eta egikaritzea.
- 3.- Berreskuratutako eremuaren azalera eta erabiliko ez diren bideak kentzea.
- 4.- Egikaritutako bideen metro linealak.

Jarraipena eta ebaluazioa

- 1.- Zonaldeko habitata eta bideko eta haren eragin-zonaldeetako erabilera berreskuratzea.
- 2.- Eremua ikuspegi sozialetik nahiz paisaiaren ikuspegitik berreskuratzea.

PAISAIA BALIOAN JARTZEA

TOPOI BIDE BERRIAREN ESKU-HARTZEA

Azalera: Tonpoi eremu guztia.

Deskribapena

Eremuko lurzoru osoa eskuratzea, kudeaketa publikoa izan dadin. Egungo jabetza pribatuak kentzea.

Paisaia baliabide didaktiko modura balioztatzea: Paisaia eta geoaniztasuna interpretatzeko seinaleztapena ipintzea ikuspegi aldetik eta berezitasun aldetik potentzial handieneko eremuetan. Hurrengo panelak ipintzea proposatzen da:

Tonpoiak interpretatzeko panela.

Bidearen informazio-panelak, eremuaren ingurumen- eta paisaia-balioak garatuz.

Arrakastaren adierazle/irizpideak

1.- Ipinitako interpretazio-panelak.

Jarraipena eta ebaluazioa

1.- Panelen egoera

Deskribapena

Eremuan beharrekoak ez diren elementuak kentzea, esate baterako, eraikuntzetako hondarrak, obra-zaborrak eta hondakinak. Era guztietako zabor-hondakinak, egurrak eta hondakinak botatzen dira, dimentsio urrikoak direnak, baina eremuaren degradazioan eragina dutenak. Edozein esku-hartzeri ekin aurretik ezinbestekoa izango da desiratzen ez diren elementu horiek kentzea.

Arrakastaren adierazle/irizpideak

Identifikatutako isuri kopurua

Kendutako isuri kopurua

Jarraipena eta ebaluazioa

1.- Ekintzaren eraginkortasuna

BESTE ZENBAIT ESKU-HARTZE

Zorrotzeziak izateko asmorik gabe, paisaia babesteko eta balioan jartzeko eta, hala badagokio, natura eta paisaia lehengoratzeko neurriak abian jartzeko lagungarri izan daitezkeen beste esku-hartze orokor zenbait proposatzen dira. Honatx esku-hartze horiek:

- Eremua balioan jartzeko flora eta ekologia inbentario xehetasunekoa.
- Bidearen proiektuan landare inbaditzaileak erabiltzeko debekua (ereiteak eta hidroereiteak).
- Zuhurtzia modura, esku-hartze osoko hori gauzatu arte eta haren hedapena mugatze aldera, eremuan hautematen diren Panpa belar landareen (luma-mottoak) infloreszentzia moztea gomendatzen da ahalik eta partzela publiko eta pribatu gehienetan heltze-aroaren aurretik (uztaila-abuztua) hazia barreiatzea ekiditeko.
- Eszena-hondoen pertzepzioa babestu eta mantentzea, paisaia eragina duten eraikuntza edota azpiegituren inbentario bat eratzea bultzatuz, haiek ezkutatu edo gordean uztera bideratutako estrategiak zehaztuz.
- Altzariak aldatzea, hilerriaren atzealdeko bankuekin lotuta.
- Tonpoi eremuan egiten zen erromeria-eguna berreskuratzea. Eremua balioan jartzeko aukera bat izan daiteke, herri bazkari bat eta familiarteko jarduerak proposatuz.
- Hiri ortuak txertatzeko espazioren bat garatzeko aukera.
- Benito Barrueta pintorearen kalean (egungo hilerriaren ertza) espaloari jarraipena ematea.

6.1 PROPOSATUTAKO HARTZEEN IRUDIAK

ESKU-

Tonpoietarako erabateko irisgarritasunaren proposamena



Tonpoietarako sarbideak hobetzea



Atsedenerako gunearen adibidea panel eta altzariekin



Paisaiaz gozatzeko bankuen instalazioaren adibidea



Bankuz eta mahaiez atondutako atsedenerako gunearak



Bidea babesteko hesiaren adibidea

KAPITULUA 7. TONPOI BIDEAREN KORPORAZIO IRUDIAREN ESKUZKO PROPOSAMENA

Esku-hartze nabarmenena Tonpoi eremuan itsasertzeko bide bat sortzea da. Seinaleekin, balizekin edota panelekin lotutako proposamen bat eginda, "Tonpoi bidea" egokitzeko.


Horretarako, gomendioa da erabiltzea hurrengo **piktograma orokorrak**:



SG-01.
Informazioa



SG-02.
Parkinga



SG-03.
Ikuspegi panoramikoa,
behatokia



SG-04.
Informazio-panela



SG-05.
Oinezko bidea



SG-06.
Iturria



SG-07.
Hiri erdigunea



SG-08.
Atsedenerako
eremua, askari-lekua



SG-09.
Herria



SG-10.
Karabanak



SG-11.
Hegaztien behatokia



SG-12.
Haur jolasak

7.1 DEBEKUA ADIERAZTEKO PIKTOGRAMAK

Piktogramak Tonpoi bideko seinaleetan.



SP-01.
Debekatuta dago zirkulazioa
motordun ibilgailuen kasuan



SP-04.
Ez bota hondakinak lurrera, bota
gertuen dauden herriguneko
edukiontzietara



SP-07.
Debekatuta daude soinu-
erreproduzigailuak



SP-02.
Debekatuta dago landare eta
zuhaixkak erauztea



SP-05.
Ez dago baimenduta etxeko
animalien sarrera



SP-08.
Debekatuta dago sua piztea



SP-03.
Debekatuta dago flasharekin
argazkiak ateratzea



SP-06.
Debekatuta dago kanpatzea



SP-09.
Debekatuta dago bainua hartzea
pertsona eta animalientzat

7.2 ARRISKUA ADIERAZTEKO PIKTOGRAMAK

Oinezkoen bideak dituen balizko arriskuen berri emateko erabiliko dira.



SE-PE-01.
a) Bidegurutze arriskutsua
XX m
b) Ibilgailuen igarobidea
baimendutako
bidegurutzea



SE-PE-04.
a) Partekatutako tartearen
hasiera/amaiera
b) Gogoan izan! Tarte
partekatua



SE-PE-07.
Malda pikoa % X



SE-PE-10.
Iltaran igarotzeko
tarte



SE-PE-02.
a) Tarte arriskutsua XX m
b) Adi XXm



SE-PE-05.
Arriskua!
Leizea



SE-PE-08.
Arriskua!
Lur-jausiak



SE-PE-11.
Txirrinduen igarobidea



SE-PE-03.
Kontuz! Errepide bidezko
ibilbidea XX m



SE-PE-06.
Malda pikoa % X




SE-PE-09.
Oinezkoen igarobidea


7.3 INFORMAZIO-PANELAK ETA ATRILAK. SEINALEZTAPEN HORIZONTALA

Jarraian, hiru panel eta atril mota proposatzen dira, eta baita haiek egikaritzeko modua ere


**Tonpoi Bidea Panel
Modeloa**



**Landa Panel
Modeloa**




**Hirirako Panel
Modeloa**




Landa atrila
1. modeloa



Landa atrila
2. modeloa



7.4 "TONPOI BIDEA MOTAKO" INFORMAZIO-PANELA ETA ZIMENDUA



Zimendua

Zimendua ez egiturazko hormigoizko zapata baterako eskuzko indusketa bidez egingo da (20N/mm²).


Zapataren dimentsioak:

500 x 500 x 750 mm.

Habeak ainguratzeko alderik alderako barra korrugatuak erabiliko dira, habearen muturrean soldatuta.

Panelaren altuera librea 2200 mm-koa izango da, arrasaren azpitik 500 mm geratuz.

7.5 "LANDA MODELO MOTAKO" INFORMAZIO-PANELA ETA ZIMENDUA



Erabilera, materiala eta zimendua

Erabilera

Landa eremuko zonaldetan erabiltzeko informazio-panela.

Materiala

Informazio-panelak 1.200 x 800 mm-ko azalera erabilgarriarekin, eta 2.000 x 1.580 mm-ko guztizko dimentsio batekin, autoklabean tratatutako zurezkoa, huste – presio – huste prozesuari jarraiki, Kromo eta Arseniko gabeko gatz hidrodisolbagarrien bidez, 4 erabilera klase baterako (kanporako, zoruarekin edo hezetasun-iturriekin kontaktuan, UNE-EN 335-2:2007 arauaren arabera) lurzoru gogor gaineko burdineriaz torloju, berno eta burdineria eta ainguratzea ezkutatzeko zurezko taparekin, eta zimendua lurzoru bigun gainean HM-20 de 40x40 x 60 cm erako hormigoizko zapatekin. Erdiko panela altzairu galbanizatuko plantxa bidez beroan fabrikatua 1200 x 800 x 2 mm neurriekin eta binilozko xafla babeserako aurrez pintatuak edo metakrilatoan UV babesarekin oinarrian biniloaz.


Zimendua

Zimendua egiteko eskuzko indusketa egingo da hormigoizko zapata ez egiturazkoaren kasuan (20N/mm²)

Zapataren dimentsioak: 500 x 500 x 500 mm.

Euskarria ainguratzeko altzairuzko puntak erabiliko dira, azpiko muturrean iltzatuak, arrasa azpian. Panelaren altuera libre 2000 mm-koa izango da, arrasaren azpitik 500 mm geratuz.

7.6 "HIRI MODELO MOTAKO" INFORMAZIO-PANELA ETA ZIMENDUA



Erabilera, materiala eta zimendua

Erabilera

Landa eremuko zonaldetan erabiltzeko informazio-panela.


Materiala

Aluminiozko teilatutxoa duen informazio-panela 1.260 x 960 mm-ko azalera erabilgarriarekin, eta 2.000 x 2.750 mm-ko guztizko dimentsio batekin, autoklabean tratatuta, huste – presio – huste prozesuari jarraiki, Kromo eta Arseniko gabeko gatz hidrodisolbagarrien bidez, 4 erabilera klase baterako (kanporako, zoruarekin edo hezetasun-iturriekin kontaktuan, UNE-EN 335-2:2007 arauaren arabera) lurzoru gogor gaineko burdineriaz torloju, berno eta burdineria eta ainguratzea ezkutatze zurezko taparekin, eta zimendua lurzoru bigun gainean HM-20 de 40 x 40 x 60 cm erako hormigoizko zapatekin. Erdiko panela altzairu galbanizatuko plantxa bidez beroan fabrikatua 1.260 x 960 x 2 mm neurriekin eta binilozko xafra babeserako aurrez pintatuak edo metakrilatoan UV babesarekin oinarrian biniloaz.

Zimendua

Zimendua egiteko eskuzko indusketa egingo da hormigoizko zapata ez egiturazkoaren kasuan (20 N/mm²). Zapataren dimentsioak: 500 x 500 x 500 mm. Euskarria ainguratze altzairuzko puntak erabiliko dira, azpiko muturrean iltzatuak, arrasa azpian. Panelaren altuera librea 2000 mm-koa izango da, arrasaren azpitik 500 mm geratuz.

7.7 ATRILEN EREDUA



Erabilera, materiala eta zimendua

Erabilera

Landa eremuko zonaldetan erabiltzeko informazio-atrila.

Materiala

Formatu makurtua duen idazkuna, autoklabean tratatutako eta sekzio zirkularra duen, 120 mm-ko diametroz, pinuaren eguraz egindako euskarri batekin osatua; hodiaren finkapena aluminio pintatua eta altzairu galvanizatuko plantxa batekin beroan egindakoa, 420 x 420 x 2 mm neurriekin.

Zimendua

Zimendua egiteko eskuzko indusketa egingo da hormigoizko zapata ez egiturazkoaren kasuan (20 N/mm²). Zapataren dimentsioak: 400 x 400 x 400 mm.

Euskarria ainguratzeko altzairuzko puntak erabiliko dira, azpiko muturrean iltzatuak, arrasa azpian. Atrilaren altuera librea 1360 mm-koa izango da, arrasaren azpitik 300 mm geratuz.

7.8 SEINALEZTAPEN BERTIKALA


Jarraian bidea bertikalki seinaleztatzeko modelo ereduak aurkezten dira.




Norabide
seinalea



Norabide
seinalea
erabilerekin



Norabide
seinalea
erabilerekin



Erabilera

Erabilera

Gezi sinpleko forma duen kartel bat da, eta bere helburua erabiltzailea barnean deskribatzen diren jomugetara iristeko orientatzea da.

Dimentsioak

594 x 210 mm, horizontala. Puntaren eta radioen neurri zehatzak eskuliburura atxikitako fitxategietan jasotzen dira.

Egitura

Zabalera osoa 16 ataletan banatzen da eta altuera 8 ataletan. Horrela, horren ondoriozko lerroak erreferentzia gisa lagungarri dira edukiak maketatze orduan.

Gehienezko inguratzailak elementu guztiak hartzen ditu, horiek irten egin daitezkeelarik minimoki noizbait.

1. zonaldea Burualdea


Ibilbidearen logotipoa eta izena barneratzen dira, eta baita ere matrikula eta marka, halakorik balu.

2. zonaldea. Informazioa.

Bertan jasotzen dira toponimoa edo toponimoak, piktograma, halakorik balego, distantzia eta MIDE denbora.

1. zonaldea nahiz 2. zonaldea hurrengo orrietan garatzen dira.

7.9 SEINALEZTAPEN BERTIKALA EGIKARITZEA. I. ZATIA



Ezaigarriak

Postea


Landutako zurezko postea 120 mm-ko diametroaz eta 350 mm-ko altueraz.

Zimendua

Zimendua egiteko eskuzko indusketa egingo da hormigoizko zapata ez egiturazkoaren kasuan (20 N/mm²). Zapataren dimentsioak: 500 x 500 x 500 mm

Euskarria ainguratzeko altzairuzko puntak erabiliko dira, azpiko muturrean iltzatuak, arrasa azpian. Seinalearen altuera librea 1300 mm-koa izango da, arrasaren azpian 400 mm geratuz.

7.10 SEINALEZTAPEN BERTIKALA EGIKARITZEA. II. ZATIA



Erabilera eta muntaketa

Erabilera

Norabidea adierazteko postea erabiltzen da seinalatzeke ibilbide Berdearen trazatuaren norabidea lehen mailako Korapilo modura identifikatutako guneeetan edo lehen mailako bektoreen arteko bidegurutzeetan.

Muntaketa

Kasu guztietan plakak seinaleztatzen den bidearen trazuarekiko paraleloan ipintzen dira, geziaren punta norabide horretara apuntatuz.

Soilik seinalean barneratu nahi den informazioa asko denean eta, horren ondorioz, norabidea adierazteko seinale bat baino gehiago erabili behar direnean, ez dira bi gezi ipini behar norabide bera adieraziz.

KAPITULUA 8. AZKEN ESKU-HARTZEEN AURREKONTU ESTIMATUA

Ekintzak	Egikaritze-Faseak epea	Lehentasuna	Balioespen ekonomikoa	Balizko Finantzaketa-bidea
1. BLOKEA - NORTASUNA				
Eremuaren ingurumen arloko heziketa-programa bat eratzea. Ikastetxeen eta beste elkarte batzuen artean eratutako programa. Ingurumen arloko heziketa-proiektua geologia intereseko zonaldean.	Ertaina	Batez bestekoa. Ekintza honen garapena Tonpoi Bidea egikaritzearen baitan egongo da.	+4.000€	Escola Agenda XXI
Gaikako muralak egitea Talako Andra Mari auzoan. Ekimen hau mural-lehiaketa batetik has daiteke, tokiko artisten parte-hartzea sustatzeko.	Luzea. III. fasea.	Baxua	+ 3.000€ muraleko eta tamainaren arabera	
Bermeoren nortasun arrantzalea berreskuratzea behatokitako informazio-panelen bidez, tokiko erakarpen turistiko modura eta historia berreskuratze baliagarriak izango direnak. Horri buruzko bibliografia begiratu da ² eta jardute-eremuan ez dago talaien aztarnarik ikusgai. Gaur egun, eraikuntza horiek zeuden parajeen Bermeoko Talea auzoa dago. Gune horretatik lortzen den ikuseremua mugatu samarra da, izan ere, Matxitxako eta Ogoño lurmuturren artean dagoen senadia baino ez da kontrolatzea lortzen. Hori dela eta, Tonpoi inguruneke etorkizuneko bidean 4 panel-behatoki eraikitzea proposatzen da, informazio-panelak, babes-hesiak eta ikuspegiez gozatzeko hiri altzariak gaineratuz. Antolamendurako eta kudeaketarako neurriak, horiek balioan jartzeko: Behatokiak sortzea puntu jakin batzuetan. Esate baterako: 1- Aritzatxura iristen, itsasoa, geologia intereseko zonaldea eta hondoan Aritzatxu ikusten direla; 2 – Behatokia Tonpoi txikian. 3 – Behatokia Tonpoi handian. 4.- Behatokia Aritzatxuko hondartzatik hurbil. Seinaleztapen jakin batzuk zonaldea hobeto ezagutzeko (flora, fauna, toponimia, Talako muralen azalpen-panelak) eta gune arriskutsuei buruz ohartarazteko (itsaslabarrak), zonaldearen izaera naturala mantenduz. Ibilbidearen eta paisaia intereseko lekuen hiri seinaleztapena.	Laburra. 1. fasea.	Handia	+6.000 € panel bakoitzeko, diseinua barne. Bidea seinaleztatzeko proiektu bat egin beharko da, bidearen eta hartako eragin-eremuen seinaleztapena ikertzekoa. Seinaleztapen-proiektuaren kostua 6.000 eurokoa izango da gutxi gorabehera, logotipoaren proposamena barne.	Eusko Jaurlaritzaren laguntzak, Osasun eta Ingurumen Sailak Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzak, bide eta ibilbide osasuntsuekin lotuta. Bizkaiko Foru Aldundiaren Itsaspen programa

² Euskal Herriko Talaiak eta Seinerio-postuak. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. 2009. urtea.

Ekintzak	Egikaritze-epea	Lehentasuna	Balioespen ekonomikoa	Balitzko Finantzaketa-bidea
2. BLOKEA - ERABILERA ETA MUGIKORTASUNA. OINEZKO PASABIDE IRISGARRIA TONPOI INGURUAN				
Paisaia- eta ingurumen-ibilbide bat sortzea, itsaslabarretatik eta ongi seinalizatua, Talatik Aritzatxura. Bidea garbitu eta zabaltzea. Ibilbidea gaitzeko zorua baitaratu eta egungo bide eta ibilbideekin lotura egitea. Hau izango litzateke Paisaia Plana dinamizatzeko esku-hartzea³. Erabilera publikoa berreskuratzea itsaslabarretako zortasun-partzeletan, eta baita Tonpoi inguruneke etorkizuneko bidea ere. Gaztelu Apurtutik Aritzatxu arterako bidea berreskuratzea. Bidea zabaltzea. Irisgarritasuna errazteko bideak egokitzea. Bi Tonpoien arteko sarbidea hobetzea.	Laburra. I. fasea	Handia	Eraikuntza-proiektu bat garatzea, gehienez 18.000 euroko zenbatekoaz. Topografia, zenbait gunetan geoteknika eta memoriaren garapena eta eraikuntza-eranskinak hartuko ditu barne.	Bermeoko Udala izango da lurzorua baitaratzeaz arduratuko dena. Kostak du Itsas Jabari Publikoaren gaineko eskumena eta horrenbestez bere eskumena da bidea (6 metro) baitaratzea. Eremuaren eta bidearen mantenua Bermeoko Udalaren eskumena izango da.
Bidea egokitzea (irisgarritasuna hobetzea) autokarabaren aparkalekutik Tonpoietara (Tonpoi handia eta Tonpoi txikia) arte. Zuhaitzia.	Luzea. IV. fasea	Baxua	Hobekuntza idan daiteke egungo espaloien seinalizatzen eta eraikuntzan hilerri aldean	Eusko Jaurlaritzaren irisgarritasunerako laguntzak
Konexio zuzenak hilerriaren paraleloan dagoen kaletik kostaldera arte. Hilerriaren paraleloan dagoen kalea atseginago bilakatzea (oinezko eta txirrinduentzat). Eta hortik aurrera, oinezko sarea kostaldeko itsaslabarretara arte.	Luzea. III. fasea.	Baxua	Kostu baxua, seinalizatzenaren sorreran oinarritua. Egungo bankuak berritu egin daitezke Tonpoi Bidearen irudi korporatiboarekin bat etorriko diren beste batzuk ipiniz. Bankuen gutxi gorabeherako kostua 300 euro unitateko.	

³ Aurrerago bidea sortzeko proiektu eredu baten aurrekontua agertzen da. Haatik, eraikuntza-proiektua garatzen ez den arte ezinezkoa izango da kostu zehatza jakitea, material motaren, drainatzeen edota sostengatzeko modua dela medio.

Ekintzak	Egikaritze-epea	Lehentasuna	Balioespen ekonomikoa	Balizko Finantzaketa-bidea
Atsedenerako guneetan zuhaiztiak egokitzea bi zonaldean.	Laburra. 1. fasea.	Handia	Gutxi gorabehera 380 euro piknik-mahai bakoitzeko gehi beste 100 euro tamaina jakin bateko zuhaiztiena.	Eusko Jaurilaritza, Ingurumena.
Hiri ortuak, erabilera publiko berri gisa zonaldean, esku-hartzearen erabilera eta kudeaketa arautzeko araudi batekin.	Luzea. III. fasea	Ertaina	Hiri ortuen zonaldea hartuko duen lurzorua arabera. Kostua izan daiteke	
3. BLOKEA - SEGURTASUNA ETA IRISGARRITASUNA				
Gune arriskutsuak seinalatzatzea. Bidearen eta hartako esku-hartzeen diseinuaren barnean sartuko litzateke.	Laburra. 1. fasea.	Handia	Arriskuaz ohartarazteko seinalaren kostua 300 euro inguru eta baranda m lineala 50 euro.	
4. BLOKEA - PAISAIAREN KALITATEA				
Paisaia integraziorako ikerketak eskatzea, eremuan garatzeko etorkizuneko jardueri begira.	Laburra. 1. fasea.	Handia	Ez luke kosturik izango, izan ere, sustatzaileek hartu beharko lukete kostua beregain.	
Fauna eta flora berreskuratu, mantendu eta babesteko neurriak: Eremuko landare-eta fauna-espezieen inbentarioa eratu eta horiek balioan jartzea adierazitako informazio-panelen bidez.	Laburra. 1. fasea.	Handia	5.000 y 6.000 euro bitartekoa	
Integrazioa beste udal plan batzuekin, esate baterako, Bermeoko Herrigune Historikoaren Plan Bereziarekin.	Laburra. 1. fasea.	Ertaina		

Ekintzak	Egikaritze-epea	Lehentasuna	Balioespen ekonomikoa	Balizko Finantzaketa-bidea
5. BLOKEA - ESPAZIO PRIBATUA				
Eraikuntzen presentzia kentzea zonaldearen estetika hobetzeko xedez.	Laburra. 1. fasea.	Handia	Horri buruzko udal araudi bat idaztea. Gutxi gorabeherako kostua 3.000 euro.	
Tonpoi eremuko lurzorua eskuratzeko espazio publikoa berreskuratzeko.	Laburra. 1. fasea. bidea sortzeko. Eremuaren gainerako zonaldetan lurzorua eskuratzeko II., III. eta IV. faseetara jo behar da.	Handia	Aldakorra partzelen arabera. Kostu handia izango dela estimatzen da.	
Egungo bideko ezpondetako isurien aldizkako kudeaketa. Eremua garbitu eta hondakinak kudeatzea. Tonpoi eremu osoaren garbiketa eta kudeaketa.	Laburra. 1. fasea.	Handia	Gutxi gorabeherako kostua 3.000 euro.	

8.1 TONPOI BIDEA EGIKARITZEKO AURREKONTU ESTIMATUA

Aurrekontua estimatua da, eremuaren lehen neurketa batean oinarritua. Kostu zehatza jakiteko eraikuntza-proiektua topografia eta geoteknika bidez garatu beharko litzateke.

1. KAPITULUA: LUR MUGIMENDUAK

Klabea	UNITATEA	DESKRIBAPENA	PREZIOA (€)	UNITATE KOPURUA	luzera	zabalera	altuera	Partziala	Neurketa	Zenbatekoa (€)
0101	m2	Landare-lurra garbitu eta kentzea, batez beste 30 zentimetroko lodierara iritsi arte.	0.80 €							
				1	9082			9082		
									9082	7,265.60 €
XXXX	m2	Aratua	0.30 €							
				1	9082			9082		
									9082	2724.60 €
0102	M3	Indusketa lur mota guztietan, baita arrokan, lur solte edo igarobidean ere bitarteko mekanikoak baliatuz kaxa, lur-erazketa eta zimenduetan, baita indusketan soberan geratutako produktuak zamatu eta zabortegira eramatea, erabiltzeko gunera garraiatzea eta metatze-gunera garraiatzea trazaren ertzean nahiko leku ez dagoenean eta, ondoren, zamatu erabiltzeko lekura eramatea, akidura unitatea profil gainean neurtuta	7.56 €							
				1	2700			2700		
									2700	20,412.00 €

0103	M3	Lubeta mailegu, zabalgun, hezetze eta trinkotzeetatik ekarritako produktuekin, are, ezponden profilatzea eta koroatze-azaleraren berdintzea egitea, amaitua.	4.26 €							
				1	600			600		
									600.00	2,556.00 €
0104	M3	Landare-lurrak berriro jartzea lubeta-ezpondetan eta bermatan	1.56 €							
				1	600			600		
									600	936.00 €
0105	M3	Balasto bergizenduarekin egokitutako harria	18.90 €							
				1	2000			2000		
									2000	37,800.00 €
0106	M3	Indusketatik ateratako lurzoru toleragarria betetzea (bermen oinarria)	2.00 €							
				1	1200			1200		
									1200	2,400.00 €

LUR MUGIMENDUEN AURREKONTU OSOA =									74,094.20 €
-----------------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	-------------

2. KAPITULUA. ZOLADURAK

Klabea	UNITATEA	DESKRIBAPENA	PREZIOA (€)	UNITATE KOPURUA	luzera	zabalera	altuera	Partziala	Neurketa	Zen
0201	M3	ZA-25 zagor artifizialeko oinarri granularra, hedatua eta bere dentsitatearen % 100era arte trinkotua, Proctor moldatua. (Halakoa izango litzateke bidearen gainazala lurrezkoa izango ez balitz)	21.36 €							
				1	2700			2700		
									2700	57

ZOLADUREN AURREKONTU OSOA =

57

4. KAPITULUA. DRAINATZEA

Klabea	UNITATEA	DESKRIBAPENA	PREZIOA (€)	UNITATE KOPURUA	luzera	zabalera	altuera	Partziala	Neurketa	Zen
0402	PA	Justifikatu gabeko partida goratua, drainatzearen zati proportzionalerako, eragindako zerbitzuak birjartzeko, ustekabeetarako eta bestelakoetarako.	15.000.00 €							

5. KAPITULUA - INGURUMENA LEHENGORATZEA

Klabea	UNITATEA	DESKRIBAPENA	PREZIOA (€)	UNITATE KOPURUA	luzera	zabalera	altuera	Partziala	Neurketa	Zenbatekoa (€)
				0.5	1			0.5	0.5	7.50 €
0701	M2	H1 Hidroereiteak hazien nahasketekin gramineoz hornitutako lekadunen mantenu gutxiko landa erako ezpondetarako NTJ 07N arabera, dosifikazioa 35 g/m2 izanik, ura, zuntz begetaleko lur-estalkia birrindutako lasto bidez eta zelulosa zuntz laburraz (150 g/m2), liberazio moteleko organo-mineraleko abonua, mikrobioen bioaktibatzaileaz eta buztinezko oinarritun egonkortzaile sintetikoa.	0.80 €							
				2	1	1		2		
									2.00	1.60 €

EGIKARITZE MATERIALAREN AURREKONTU OSOA =

131,766.20 €

KAPITULUA 9. TONPOI BIDE BERRIKO ARGAZKIEN TRACKA



OMIMG_20180309_124357.jpg



OMIMG_20180309_124415



OMIMG_20180309_124513



OMIMG_20180309_124647



OMIMG_20180309_124730



OMIMG_20180309_124745



OMIMG_20180309_124843



OMIMG_20180309_125048



OMIMG_20180309_125221



OMIMG_20180309_124901



OMIMG_20180309_125212



OMIMG_20180309_125326



OMIMG_20180309_125526



OMIMG_20180309_130235



OMIMG_20180309_130522



OMIMG_20180309_125703



OMIMG_20180309_130242



OMIMG_20180309_130532



OMIMG_20180309_130541



OMIMG_20180309_130630



OMIMG_20180309_131257



OMIMG_20180309_130618



OMIMG_20180309_130812



OMIMG_20180309_131339



OMIMG_20180309_131417



OMIMG_20180309_131600



OMIMG_20180309_131801



OMIMG_20180309_131443



OMIMG_20180309_131745



OMIMG_20180309_131915



OMIMG_20180309_132003



OMIMG_20180309_132108



OMIMG_20180309_132549



OMIMG_20180309_132014



OMIMG_20180309_132438



OMIMG_20180309_132605



OMIMG_20180309_132623



OMIMG_20180309_132808



OMIMG_20180309_132933



OMIMG_20180309_132655



OMIMG_20180309_132848



OMIMG_20180309_132943



OMIMG_20180309_133048



OMIMG_20180309_133803



OMIMG_20180309_134154



OMIMG_20180309_133101



OMIMG_20180309_134110



OMIMG_20180309_134223



OMIMG_20180309_134448



OMIMG_20180309_134540



OMIMG_20180309_134701



OMIMG_20180309_134504



OMIMG_20180309_134548



OMIMG_20180309_134838

